

Brasilgo oihana, arriskuan

Amazonia

Brasil aurrera proiektuan aurreikusitako errepideetako bat. • EGUNKARIA

Munduko birika, hiltzorian

JULEN ETXEBERRIA

Amazonia, Brasilgo oihan ospetsuena eta munduko handiena hiltzorian dago. Hori da behintzat *Science* Estatu Batuetako aldizkari zientifikoak plazaratu duen ikerketa batek jakinarazi berri duena. Michigango Unibertsitateko zientzialari talde batek egin du ikerketa, eta bertatik atera dituzten datuak ezin ezkorragoak dira. Datu horien arabera, gaur egun Amazoniako baso-soiltzea eteten ez bada, oihanaren ia erdia desagertu daiteke hemendik 20 urtera.

Ikertzaileek azpimarratu dutenez, Brasilgo Gobernuak bultzaturiko *Brasil aurrera* izeneko proiektu handiak eragin du batik bat munduko birikaren baso-soiltzea. Proiektu horrek 40 bilioi dolarreko aurrekontua du, eta hainbat errepide, trenbide eta hodiaren eraikuntza eta konponketa jasotzeaz gain, petrolioaren ustiatzarekin eta energia hidroelektrikoarekin zerikusia duten hainbat programa ere jorrotzen ditu, eta horietatik asko Amazoniako oihan itzelean egingo dituzte.

**Honela jarraituz gero,
Amazoniako oihanaren ia
erdia desagertu
daiteke hemendik
20 urtera**

Amazoniako baso-soiltzea ez da gauza berria. 1999. urtean, Greenpeace erakunde ekologikak *Txikizioarekin aurrez aurre: Greenpeacearen txostena Amazoniako Egur Multinazionalen Konpainiei buruz* izeneko txostena aurkeztu zuen. Bertan, Afrika erdialdeko eta Asia hego-ekialdeko zenbait eremutan ustiaketa lanak egin ostean, Amazonian ezarri ziren hainbat egur multinazionalen eragiten zuten kalte ekologiko itzelaren berri ematen zen.

1999. urtean, Greenpeace erakundeak egindako azterketan lortutako datuak ez dute hobera egin. Aitzitik, okerrera egin dute. Hala, munduko baso-soiltze batez besteko handiena Amazoniak du gaur egun —bost milioi akre urtean—, eta Estatu Batuetako zientzialari taldeak egin



Amazonia baso-soiltzen ari da etengabe, eta azken urteotan bertan ezarri diren egur multinazionalen haren heriotza eragin dezakete

berri duen ikerketaren arabera, batez besteko baso-soiltzea %25 baino gehiago igo da azkeneko urtean.

Orobat, aipatu beharra dago populazioaren hazkundeak eta bereziki azken urteotan oihanaren ezarri diren hainbat egur multinazionalen ez dute inongo mesederik egiten.

Ekologista guztiak bat datozen zerbait azpimarratu dute Michigango Unibertsitateko ikertzaileek: Amazoniak egunegun pairatzen duen eraso ekologikoa ez dela txantxetan hartzekoa, eta bertan izan daitezkeen kalteek guran eragin zuzena izan dezaketela.

Brasilgo Gobernuak entzungor

Egoera horri buelta emateko aukera badagoela azpimarratu dute ekologista askok. Horretarako, Brasilgo Gobernuak orain arte bakarrik etekin ekonomikoak aintzakotzat hartuz bideratu duen politika alde batera utzi, eta neurriak har ditzan beharrezkoa dela diote. Brasilgo Gobernuak, aldiz, Energia eta Teknologia Ministerioaren bitartez, ez ditu erakunde

ekologisten eskaerak eta gomendioak aintzakotzat hartu. Horren inguruan, Amazoniaren etorkizuna kolokan jartzen duten ikerketek datu okerrak erabiltzen dituztela eta guztia «ekologisten asmakeria» dela dio.

Amazonian lanean dabiren langile talde bat. • EGUNKARIA



MIKEL MENDIZABAL
(Brasilgo oihanaren egon den biologoa)

Oihanaren Mintzoa

Kozkadaz kozkada ari da Amazoniako oihana jaten, ondorietariko bat mendebaldeko gizarteak ezagutu gabe desagertzen ari diren bertako espezie eta ekosistemak ditugu. Oihartzun eskasagoa izan arren prozesu beraren baitan oihan horrek mantentzen dituen kulturak ahuldu eta desagertzen jarraitzen dute. Kultura horiek dituzten balioen artean, oihanarekiko ezagutza da, berarekin izandako milaka urtetako erlazioaren ondorioa dena. Ezagutza hori, mendebaldeko zientzia klasikoak ez du inoiz kontuan hartu (enpresa farmazeutikoek salbu), sistematikoki baztertua izan da ez delako zientziaren moldetan kabitzen, hau da, zientziak ezin izan dituelako ezagutza horien jatorriak azaldu. Seguruenik oihanaren eta bertako kulturen suntsitzearekin oihanak dituen arazoaren irtenbideak ere lurperatzen ari gara.

Gizarte zuriarekin tratuan dauden komunitate amerindiarrak (150 inguru Brasilen), kontaktu garaiko bortizkeriatik osatzea lortu badute, konturatu dira mendebaldeko gizarteak duen aseizintasunaz. Bere lurrei lotsarik gabe eta zurien legegien aurka erasotzen diete militar, urrezale, ehiztari, basozale edota abeltzainek. Zorionez, Brasilen gero eta gehiago dira arrisku egoera horretaz jabetu eta horren aurrean lanean hasi diren komunitateak. Garapenerako Gobernuak Kanpoko Erakundearen laguntzaz komunitate horiek euren lurren defentsa prozesuetan protagonista dira; adibide gisara, Baso Kudeaketa Komunitarioa egiten duten Xikrin komunitateak (Para estatuan) edota Acre estatuko komunitateetako ingurugio arduradunen formakuntza prozesuak aipa ditzakegu.

Pentsatzekoa da globalizazioaren aurrean 1.000 pertsonara iristen ez diren oihaneko komunitateek zer-nolako mugak dituzten, baina globalizazioak sortzen dituen arazoaren aurrean, modu globalean pentsatzeaz gain, tokian tokiko ekintzen beharra ere badago. Elkartasunaren funtzioa izango da ekintza horiek bultzatzea eta horiek elkartzeko bideak eraikitzea. Horretarako, gizarte zuriaren papera, oihaneko komunitateei hitza ematek harago, oihaneko biztanleek esaten dutena entzun eta ulertzen saiatzea da.